

Pako Makazaga Arruabarrena

*Zarautz,
Gipuzkoa (1927)*

Aurkibidea

Biografia



Zarautzen jaioa, tailugilea izandakoa da. Zarauzko sindikatuen mundua barru-barrutik ezagutu izan du.

Zintak

ZAR-042

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-08-22
- **Iraupena:** 93 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Eskolan galdutako orduak errekuperatu ezinik

- **Erref:** ZAR-042/003
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:08:32. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

14 urte bete aurretik irten zen eskolatik eta amaren baserrira joan zen babarrunak biltzera tripa betetze aldera. Berriz eskolara itzuli eta bere kontura saiatu behar izan zen besteen parera iristeko.

2. 14 urterekin tailerrera eta gau-eskoletara

- **Erref:** ZAR-042/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ez du zaletasun handirik izan. Aitarekin joaten zen arrantzara. 14 urterekin hasi zen tailerrean eta gau-eskoletara ere joaten zen.

3. Gerra aurreko irakasleak euskaldunak; ondorengoak erdaldunak

- **Erref:** ZAR-042/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Eskolan erabili zituzten liburuak. Gerra aurretik, Xabiartxo liburua erabiltzen zuten. Gerra aurretik irakasle euskaldunak zituzten, baina ondorenean erdaldunak. Eskolan egoten zen pankarta.</p>

4. Udaletxea erre zutenekoa

- **Erref:** ZAR-042/009
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:16:36. **Bukatu:** 00:17:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerra-garaian, aitak amaren baserrira eraman zituen reketeak zetozelako. Udaletxea erre zutenekoa nola gogoratzen duen.

5. Errenta ezin ordainduta etxez aldatu ziren

- **Erref:** ZAR-042/010
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gosea. Amak ere tapizeri-lanak egiten lan egiten zuen etxean familia aurrera ateratzeko. Errenta ezin ordaindu eta "Txakurraren sala" inguruko etxe batera aldatu ziren. Paso-nibelak banatzen zituen herria eta mendi-aldea.

6. Mutikotako lanak; koro parrokieleko partaide

- **Erref:** ZAR-042/011
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerra-garaian ere joaten ziren eskolara. Aitari lagundu baratzean, jolas egin... Don Fernando parroko organistak aukeratuta koro parrokiele abesten zuten. Pagarik ez zuten izaten. Mutikotan egindako lanak.

7. 14 urterekin tailan lanean eta gau-eskolan marrazketa ikasten

- **Erref:** ZAR-042/012
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:22:54. **Bukatu:** 00:24:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

14 urte bete bezain laster hasi zen lanean tailista moduan. Berak zer zen ere ez zekien. Gau-eskolara ere joaten zen marrazketa ikastera. Gaztetan asti askorik ez zuten izaten dibertitzeko.

8. Tximillua zertarako erabiltzen zen

- **Erref:** ZAR-042/013
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:24:47. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Tximillua (=viruta), beste herri batzuetan nola esaten den. Sua pizteko

erabiltzen zuten askotan. Beranduago hasi ziren ganaduarentzat azpi moduan erabiltzen. Hasieran jendea harritu egiten zen.</p>

9. Baserrian egiten zituen lanak

- **Erref:** ZAR-042/014
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Baserrian egiten zituen lanak: belarra bildu, sagarrak bildu...

10. Arrantzara noiz; zer hartzen zuten

- **Erref:** ZAR-042/015
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:30:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ahal zuten guztian joaten ziren arrantzara. San Jose ingurura arte aterpean izaten zituzten txalupak. Txipiroiak eta arrain txikiak hartzen zituzten: panekak, kabrak... Txibiak saldu ere egiten zituzten dirua lortzeko. Ze garaitan ibiltzen ziren arrantzan.

11. Artes y oficios, gerora eskola profesionala izango zena

- **Erref:** ZAR-042/016
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:30:45. **Bukatu:** 00:34:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

14 urte ingururekin hasi zen gau-eskolan, soldaduskara joan arte. Marrazketa ikasten zuen batez ere. Hasieran "Artes y oficios" zen eta gerora eskola profesionala. Irakasleak: Jose Luis Iriarte gasteiztarra, Tomas Murua...

12. Marrazketa klaseak nolakoak ziren; nork finantziatzen zuen eskola

- **Erref:** ZAR-042/018
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:35:32. **Bukatu:** 00:37:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Klaseak nolakoak izaten ziren. Laminak kopiatu behar izaten zituzten eta irakasleak ze akats egiten zituzten esaten zieten. Hasiera batean fraideek ordaintzen zituzten klaseak egur-lantegiekin batera. Eskola profesionala sortzean erakundeek ere parte hartuko zuten.

13. Mutilak bakarrik marrazketa klaseetan

- **Erref:** ZAR-042/019
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:37:04. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Hasieran laminekin hasi ziren eta gero buztinarekin ere egiten zituzten irudiak. Tailan ere egiten zuten. Lagunarteko giroa izaten zuten klasean. Mutilak bakarrik egoten ziren. Zarautzen emakumeak tailerrean Pielhoff-en bakarrik zeuden.

14. Hirurogeitik gora tailista Zarautzen

- **Erref:** ZAR-042/020
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:40:30. **Bukatu:** 00:42:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lehenbiziko soldata: bederatzi erreal egunean. Tailista ugari zegoen Zarautzen, hirurogeitik gora. Gaur egun ia ez da batere geratzen.

15. Tailaren beherakadaren arrazoa

- **Erref:** ZAR-042/021
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:42:05. **Bukatu:** 00:44:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Tailistak zergatik gutxitu ziren. 1945 urte inguruan tailatzeko makina ekarri zuten Balmasedatik eta merkeagoa zenez, eskulana gutxitzen joan zen.

16. Tailer batetik bestera ibili zen

- **Erref:** ZAR-042/022
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:44:22. **Bukatu:** 00:46:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Soldadutzan zegoela, berak lan egiten zuen tailerra desegin eta lantokirik gabe geratu zen. Etxean hasi zen lanak egiten. Gerora, berriz tailerrean hasi zen Orion, eta azkenik Zarautzera bueltatu zen.</p>

17. Tailarako erremintak

- **Erref:** ZAR-042/023
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:46:07. **Bukatu:** 00:47:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Tailarako erabiltzen ziren erremintak: gubiak, kodilluak.. Tamaina desberdineko erreminta ugari erabiltzen ziren. Dena eskuz egiten zuten.</p>

18. Egur-motak

- **Erref:** ZAR-042/024
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:47:04. **Bukatu:** 00:48:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Egur-motak. Bera altzariekin lanean hasi zenean haritza, gaztaina, zumarra, intxaurra, lizarra eta gerezia ziren onenak. Pagoa barruko gauzak egiteko erabiltzen zen. Okumea. Intxaurra garestia zen.

19. Marinara apuntatzeko arrazoiak

- **Erref:** ZAR-042/025
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:48:30. **Bukatu:** 00:50:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Marinan egon zen soldadutzan. Garai txarrekoa dela dio. Ogi gogorra eta janari txarra. Ferrolen zer jaten zuten. Marinara zergatik apuntatu zen. Marinara apuntatzeko Frente de Juventudeseko zertifikatua behar zen.</p>

20. Giro-politikoa; eraikuntzen erabilera

- **Erref:** ZAR-042/026
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:50:52. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Frente de Juventudes. Flechas y pelayos (falangistak eta reketeak). Batzokia auxilio social egin zuten. Kasinoa zegoen lekuan ere eskekoei bazkariak ematen zizkieten. Gerra aurretik karlista eta nazionalistak parean ibiltzen ziren hauteskundeetan.</p>

21. Egurrerako zaletasuna nondik datorren Zarautzen

- **Erref:** ZAR-042/028
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:54:08. **Bukatu:** 00:55:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Egurrerako zaletasuna Zarautzen. Elkanoren garaian itsasontziak ere egiten ziren. Ziurrenik, itsasontzietatik altzarietara pasako ziren gero. Tomas Murua izan zen mende hasieran altzarien tailerrak martxan jarri zituen. Lehenbiziko textilak.

22. Sindikalismoaren bilakaera Zarautzen

- **Erref:** ZAR-042/030
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:57:34. **Bukatu:** 01:01:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gerra-aurretik ere ELA-k lana egin omen zuen sindikalismoan. Joxe Alberdi. Baina gerora beldurrak eta errpresioak zarpuztu omen zuen mugimendu sindikala Zarautzen. 1974 inguruan berari eskatu zioten zerbait egiteko, eta klandestinitatean aritu ziren.

Transkripzioa

- Bueno, poliki-poliki ai gea sartzen lan kontuekin. Eta lehen esan det hasieran sindikalismoaren, pixka bat, sorrera Zarautzen eta hori jorratzea komeni zaigula, jasotzea gai hori...
- Bai.
- ...zeren ez deu jaso iñundik iñoa hori. Eta hortik hasi gintezke. Nola sortzen da, e, pixkat, e, jorratu dugu ze sektore zeuden...
- Bai.
- ...pixkat ze sektore produktibo zeuden eta abar. Eta ordun nola sortzen da hori, noiz sortzen da? Ze giro dago? Ze garai da hori?
- Sindikalismua itxura danez lehenbizi, ni baiño lehen, sortu zan, eta gerra aurretikan zerbait izan zan hemen. UGTk ez det uste las asko edo indar asko izango zunikan, baiño ELAk ein zun lan pixkat. Eta...
- Gerra aurretik?
- Gerra aurretikan, bai. Ta ELAn ordun, ba, gidari, buru o lehendakarik baldin bazan, o, ez dakit. Joxe Alberdi izango zan, ta hau lehen irakasle, Escuela Profesionaleko irakasle maillan ez det aitatu, baiño hori're izan zan Iriarten ta ondoren. Ta, baiño gero, itxura danez, ni ordun ez nitzan ez asko enteratzen, baiño, bildurrak eta represiyaekin dana zapuztuta gelditu zan, moimonto sindikala Zarautzen.
- Gerrarekin kitto.
- Bai, gerra ta gerra ondorenakin. Batzuek kartzela, bestiak alde inda, beste batzuek hil zituelako, eta abar. Ba, gero neri tokatu zitzaitezen ba, eskeintza bat, o eskaera bat ein ziela zerbait bide hortan hasteko. Eta ordun hasi nitzan ni pixkat miatzen, zer zeon, zer izan zan, ta abar. Ta lehen aitatu dizuten Joxe Alberdi hori're ikutu nun, beste gerran ibilitako batzuek'e bai, Alfan ta zaudenak, gudariyak izandakuak. Eta, ba, hortikan hasi nitzan aber ze ein zitekeen nolabait moldatzen. Ta, noski, hori nere kasa, espiritu santuak emandako ideak ez ziran, besten batzuk eman zizkien o bultzatu o eskatu ein zizkienak. Eta ordun, ba, klandestinidarian ELA ai zan, ba, moimantu bezela, sindikato baiño gehio, zeatikan sindikatua, taillarrian ez baldin badakau oiñarrituta, ba, hori filosofi bat beste ezer ez da. Ta filosofiyakin jan ta burrukik ez da eiten, uste det nik. Ta, esto, ordun, ba, moldatzen hasi eta kanpoko jendiakin ere kontaktua hartu ta, kontaktua hartu o haiek hartu zituen nerekin, nahi dezun bezela. Eta hortikan hasi giñun pixkat moldatzen.

- Noiz, ze garai zan hori?
- Aber, aber... hirurogeita hamalau bat, o.

23. Sindikatuaren antolamendua; lehenbiziko manifestazioa

- **Erref:** ZAR-042/031
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 01:01:52. **Bukatu:** 01:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Sindikatuaren egitura: sindikatu bertikala. Sindikatu bertikala izan arren, norbere iritzia emateko aukera izaten zen. Lehenbiziko manifestazioa Okendo kalean antolatu zuten. Manifestazioetan izan zituzten tirabirak. Azkenean tailerreko soldatatik kobratu zioten multa.

Transkripzioa

- Hirurogeita hamalaura arte hemen...
- Ezer ez. Ezer... bueno, bueno, hobeto esanda, sindikato bertikala zeon. Sindikato bertikalak eiten zun, bertikala esaten dan bezela, goitikan behera manejan. Baiño, nik uste det, burujabetasuna aitatzen asko jarduten geala, baiño burujabetasun gutxi izaten deula askok eta askotan. Eta ordun lehen aitatu deten bezela represiyuaatikan, bildurraatikan, ezjakintasunaatikan, ezer ez zeon. Ta sindikato bertikalian, ba, manejan iten zuen, baiño aukerak'e izaten zian nork bere iritziyak eman o nork bere protestak'e eiteko. Eta sindikato bertikalian alde batetikan giro bat sortu, kaleko giruakin, taillarreko giruakin baiño gehio, nahiz taillarreko kondiziyuak izan moitu arazi behar zuenak, kaleko giruakin lotuaz ta abar, ba, horrela hasi giñan pixkat lanian. Eta sindikato bertikalian ba iritsi giñan huelga montatzea.
- Hirurogeita hamalauan.
- Hirurogeita hamalauan o ez dakit seguru zenbat, ze urte izango zan.
- Zarauzko lehenengo huelga.
- Zarautzen ez. Bueno, manifestaziyua, lehenbiziko manifestaziyua Okendo kalia sortu gendun, baiño, Gipuzkoako inguruko zeak eta abar. Eta ordun, ba, hasi zian bertikalak bere era manejan eta bere girua sortzen. Baiño pixkat han landuaz, geuk'e beste giro kontrako bat, kontrakua ez, geure girua eiten sailtu giñan eta haiekin pixkat txokian agertu giñan. Ta manifestaziyuak eta're eiten hasi giñan eta baita represiyuak ere, ta maiatzen aurrenak ere izan zian porrak in ta kristo guztiyakin eta haitako batian, ba, harrapatu ez ninduen in, baiño ikusi bai, ta, ba, denuntziyak eta burrukak eta. Ta, esto, Irungo Meliton Manzanask aitu al dezu? Ba, hura jefezala, ba, gu harrapatzen ta hantxe ibiltzen zan, ta. Ta, nere ondun, ba, bat eaman ta ni, beste aldea ihes in ta, holako gauzak gertatu zaizkiu. Eta denuntziyak eta baita multa jarri're. Eta hango protestak eta abar in, eskrituak eta abar ta, iñarazi einda're kobratu ezin, nik beti argumentuak jartzen nitulako. Baiño, azkenian, taillarreko jornaletikan kendu zien multa, baiño ezta mixeikordikuai're ez ziyoen hain, hainbeste lan eingo hain diru gutxi kobratzeko.

24. Lehenbiziko manifestazioa sortzeko arrazoia

- **Erref:** ZAR-042/032
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:05:20. **Bukatu:** 01:06:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lehenengo manifestazioa sortzeko arrazoia. Baziren bi lege kontraesana zutenak. Giroa berotu eta Gipuzkoan egur-tailerrak geratzea lortu zuten.

Transkripzioa

- Eta huelgak, ba, etorri zian, ba, ez dakit ba, lehenengua berrogeita lau orduko astia sortzeko izango zan. Ta hortarako're, ba, oiñarritu giñan egur taillarrekua, Gipuzkuakuak. Bueno, hemen Zarautzen ta Azpeitiyan gendakaun indar pixkat eta abar, eta, ordenanza batian haiek'e, bertikalak'e pixkat zeatu behar ta, lege bat jarri zuen, moldatu nahi kanpora begira, eta berrogeita lau orduko astia eiteko, alegiya, lehen eiten gendun bezela, zapatuko jai hori orduak sartuta, era hartan berdun ez. Zapatuan eguardiya ezkeo ezin zitekela lanik ein. Baiño beste lege bat bazeon, eunian recuperatzeko ordu bete baiño gehio ezin zala sartu. Ordun, hor kontraesan bat sortzen zan. Nola leike, ta abar. Eta burruka horrekin ta abar ta, ordun girotu, eta burnikuak eta're hasi zian, eta ordun, ba, Gipuzkua gelditzia egur taillarrak konsegitu gendun, iritsi gendun. Ta hantxe, ta bueno, zerbait zeatu genun, ta.

25. Tailerretako lehenengo aldarrikapena

- **Erref:** ZAR-042/033
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:06:52. **Bukatu:** 01:10:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Tailerretako lehenbiziko borroka zein izan zen. Konbenioan zehazten zen 200 langiletik gorako tailerretan bazela nagusiekin eztabaidatzeko aukera. Lantegi ezberdinak elkartuz behar zen kopurua osatu eta aldarrikapenak egiten hasi ziren.

Transkripzioa

- Geo taillarretako huelgak'e holaxe etorri zian, rebindikaziyuak, lehenbiziko burruka izango zan taillarretan konbeniyotako lege bat etorri zan. Eta konbeniyotako lege hortan, ba, ziran kondiziyo batzuek. Ez dakit berrehun langilletikan gorako enpresak behar zun. Baiño, beste posibilidadade bat'e montatzen zan. Gremiyoko taillar koxkorrak juntatu ta berrehun langilletara osatzen baldin bazian, haiek'e bazuela ahalmena nausiyak negoziatzear behartzeko. Bat da negoziatzear behartzia, ta bestia negoziatzia, ta bestia kondiziyuak irixtia. Ba, era hortantxe hasi giñan. Ta Zarautzen Alfa zeon Zarautzen ta Gipuzkuan'e gutxi, Alfa ta Aiala Donostikua ta, holaxe konbeniyua zaukenak. Eta Zarautzen in gendun, ba, taillar haundiyena ordun Zarautzen zeona mueblekua Arruti izango zan ta, Arruti ta, Aranoa ta gu, Manufacturas o, juntatu ta, behar zan kopurua bagendakaun, ta presionatzen ta hasi giñan ta, lehenbiziko konbeniyo hori irixten ta abar ta. Holaxe jun gea, ba, geo rebindikaziyuak eta jendia

konzientziatzen ta abar. Hori konbeniyua, baiño gero, nere iritziz, okerre-
zan langilliak bata bestian irabaziyak ez zauzkela ezaututa eta
konfrontaziyoako ere ez zauzken datoikan. Eta nominak obligatu
beharrezkuak, eta nominetan jartzen zan jornal minimo batzuek, eta
azpitikan dirua ematen zuen. Horrek zer dakarki? O ze zakarkin? Langille
guztiyak banatuta eotia. Nausiya lasai batekin, bizkarra eurtzi, bestiai bi
pezeta eman, eta beak nahi zun neurrira. Hori puskatu nahian hasi giñan
jendiari konprenditu arazitzen “hik irabazten dekena eta agertzen dana ez
dituk berdiñak. Eta, honek batetikan, momentuan alkarrekin behar deun
lotutasuna ta indarra ukatzen dik, eta bestetikan zahartzaroako hondua
jota gelditzen haiz”. Eta hortikan hasi ginen kontutatu ta ikusten jendiak,
langilliak, bueno, “hola beharko dik” eta abar ta. Bata bestian anparuan,
animuan, ba, indar bat baiño itxura gehio jarriyaz askotan, indarra
bagendu bezela. Ta horrelaxe izan zan.

26. Tailarretako lehenbiziko greba Zarautzen 48 inguruan

- **Erref:** ZAR-042/034
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 01:10:23. **Bukatu:** 01:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Tailerretako lehenbiziko greba Zarautzen 48 inguruan izan zen. Baina ez zen
izan lan-baldintzegatik, egoera txarragatik baizik: ogirik ere ez, olio gutxi...
Gainera, inflazio handiak izaten ziren.

Transkripzioa

- Lehenengo huelga taillarretan Zarautzen zein izan zan gooratzen al dezu?
- Lehenengua gerra ezkeo izan zan taillarretakua berrogeita zazpi o zortzi o
hola izan zan. Baiño, ez zan lan kondiziyuagatikan. Egoera txarragatikan,
ogiya estraperlokua ere gorde o kendu o debekatu o ein zuen. Ta gosiak o
behartuta gogoratzen naiz, akaso, berrogeita zazpi baiño gehio izango zan,
baiño tankera mou hortan, eta, ordun, gaiñea ein zituen, ordura arte, gerra
aurreko jendia, o gerra garaiko jendia o, bat komunista zalako ta bestia,
zea, nazionalista zalako ta abar ta, batzuek eraman ere ein zituen
Donostira. Ta, ordun, erabat taillarra, taillarrak gelditu ein zian Zarautzen.
Eta fronton zineman izan zan billera bat bertikaleko jendia etorri eta
haiek'e pixkat ikaratu in zian nunbait, eta, jendia lanea hasteko. Ta “ez”
erantzuna, “ez”. “Laneako pronto gaude, baiño hor eaman dituzuen hoiek
danak ekarri”. Lehenbizikua hori izango zan, hori izango zan.
- Hori izan zan herri maillakua, ez?
- Bai, bai, hori herri maillakua.
- Ogiya txarra zeolako.
- Ogiya... Ogirik'e ez! Ezta estraperloko ogirik'e ez! Ez dakit, oliyua're ta...
Gauzak garesti ta abar, ta. Ordun, inflaziyuak izaten zian. Jode! Urtian
ehuneko hogeiko inflaziyuak eta izaten zian, e! Ikaragarriyak! Eta ordun
zaukazun jornalakin gaur hau erosten baldin bazenun, sei hillabetea
laurdena bakarrikan. Ta, arrazoi hoiegatikan izan zan lehenbiziko huelga,
gerra ondoren Zarautzen. Eta, gero, ba, etorri zian, esan dizuten bezela,
ba, taillarretako huelgak, konbeniyuak, eta abar ta.

27. Bi hilabete baino gehiagoan greban

- **Erref:** ZAR-042/035
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:13:00. **Bukatu:** 01:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Enpresa konkretuetan ere egoten ziren grebak. Bi hilabete baino gehiagoan greban egon ziren bere tailerrean hitzarmen kontuengatik. Herri-mailako grebak.

Transkripzioa

- Baiña, beti huelga herrikua edo konbeniyua, sektoriala. Baiña herriyan hola, konfliktorik eta ez zan egoten, enpresatan, aislatua?
- Bai, ba.
- Enpresa konkretutan?
- Bai, ba. Bai, ba. Bai, ba.
- Eta, lehen eindako huelga hemen, esate bateako, taillar baten?
- Taillar baten? Ez dakit zein izango zan, zein izango zan... A! Igual taillar baten geu ere bi hilabete baiño gehio huelgan eon giñan, ta.
- A, bai, e?
- Bai, ta berrogei langille izango giñan gehienez.
- Bi hilabete?
- Bai, bai, bi hilabete o. Bai.
- Konbeniyo kontuagatik, edo?
- Bai. Negoziazuyuak'e bai.
- Jo! Asko garai hortako.
- Bai, bai. Ta herri maillan, herri maillan bestia gero, sortu gendun taillar, taillar batzuek, hor, desordeniyuak asko ta gauza hoiek eta holako mobidak ere baziran. Eta taillar bateko jendia moituazi eta, esto, atera kalea eta geo beste batzuek, beste argumento o rebindikaziyo o aldarrikapen gehiokin, ta, herriya berriz ere kalea eta abar. Eta Pielhoff-eneko hortan ere bai, ta ordun huelgak ez dakit nola inbentatu ziran, baiño, bastante, bastante ein ziran.

28. Sindikalisten perfilak

- **Erref:** ZAR-042/038
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 01:19:34. **Bukatu:** 01:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Sindikalistaren irudia pobrearena zen, beharrak bultzatutakoarena, baina baziren sindikalista ikasiak ere, ideak ematen zituztenak. Lantokia oinarri hartuta jokatu izan zuen beti.

29. Egurra, borroka egehien egin zuen sektorea

- **Erref:** ZAR-042/039
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 01:22:40. **Bukatu:** 01:23:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Borroka gehien egin zuen sektorea Zarautzen egurrarena izan zen.

30. Langile eta nagusien arteko harremana

- **Erref:** ZAR-042/041
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:25:00. **Bukatu:** 01:26:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zarautzen tailer txikiak zeuden. Alfa izan zen langileak bereganatzen hasi zena. Langile eta nagusien arteko harremana.

31. Euskara ikasteko orduak langileentzat

- **Erref:** ZAR-042/045
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:32:12. **Bukatu:** 01:33:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Langileek euskara ikasteko orduak ere lortu zituzten. Konbenioetan hizkuntza kontuak kontuan hartzen dira, baina langile batzuek ez dituzte behar bezala aprobetxatzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com